

Andoain, 2024-05-09

Irailaren 20an amaituko da Sarirako hautagaitzak aurkezteko epea

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAREN AURTENGO DEIALDIA MARTXAN DA, 9.000 EUROKO BI SARIREKIN

Azaroan emango dira ezagutzera 36. edizio honen irabazleak, Andoaingo Bastero Kulturagunean egingo den sari banaketa ekitaldian.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren aurtengo deialdia egin du Andoaingo Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren babesarekin.

36. edizioa da aurtengoa eta, aurten ere, bi sari izango dira: “**Kazetaritza saria**” eta “**Komunikazio saria**”. Honenbestez, finalistak izendatuko dira, *Kazetaritza sarirako* lau eta *Komunikazio sarirako* beste lau, gehienez. Sarituak izateko hautagaitzak proposatzeko aukera izango du edonork, nork bere buruaren edo beste norbaiten aldeko proposamena egin ahal izango duelarik, baina finalistak eta saridunak erabakitzeke ez da nahitaezko baldintza izango alde aurretik hautagaitza aurkeztu izana.

2024ko edizioko irabazleak nortzuk diren azaroaren bukaeran jakingo da, Andoaingo Bastero kulturagunean burutuko den sari banaketa ekitaldian.

Andoaingo Udalaren ustez Euskararen normalizazioak, ezinbestez, behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatezkoa eta garaian garaiko beharrezanetara egokitua; eta hain zuzen, hauxe izan da Kazetaritza Sari hau hogeita hamalau urteotan antolatzeke arrazoia. Andoaingo Udalak deitu eta antolatzen duen Sari honek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren dirulaguntza eta babesa jasotzen du, urtero bezala baita aurten ere.

Aurtengo edizioaren aurkezpena Andoainen gauzatu da, Buruntzako San Martingo aztarnategi arkeologikoan. Ekitaldian parte hartu dute: Marta Lasak, Andoaingo Udaleko Euskara Zinegotziak, Estibalitz Alkortak, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko behin-behineko Zuzendariak eta Mikel Arregik, Rikardoren anaia gazteenak.

Marta Lasak azaldu duenez, “euskara indartuko badugu, ezinbestekoa zaigu kazetaritza eta komunikazioaren arloan euskara ere indartsu ikustea. Baliabideak jarri behar ditugu euskarazko sorkuntza, zabalkundea eta kontsumoa sendotzeko eta areagotzeko, eta ildo horretara bideratuta ospatuko dugu aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren 36. edizioa”.

Estibalitz Alkortak honakoa adierazi du: “Kazetaritzan aitzindariak izan nahi badugu, euskarazko komunikazio proiektu globalak sustatu behar ditugu, edukiak euskarri ezberdinetan zabaltzeko gaitasuna izango dutenak, ikus-entzunezkoen aldeko apustu sendoa egingo dutenak eta gure gizartean eragina izango duten edukiak sustatuko dituztenak”.

Mikel Arregi Aranburuk esker oneko hitzak izan ditu erakunde antolatzaileentzat eta Rikardoren oroitzapena, lana eta irakatsiak ezagutzera emateko ahalegina egiten duen ororentzat:

“36 urteko ibilbideak garbi azaltzen du zein ahalegin egin den gogorarazten eta zabaltzen Rikardok euskarazko kazetaritza modernizatzeko, suspertzeko eta indarrean jartzeko egin zuen lana. Gure aldetik eskertu besterik ezin dugu egin ahalegin hori, konpromiso hori, bai Andoaingo Udalarena bai Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena, zinez eskertu ere!

Bi sari nagusi banatuko dira: Kazetaritza saria eta Komunikazio saria. **Kazetaritza sariari** dagokionez, 2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 15era arteko tartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu diren kazetaritza-lanek izango dute saria eskuratzeko aukera. Saria 9.000 eurokoa da, eta Xabier Lakak Sarirako berariaz egindako irudi artistikoa jasoko du saridunak.

Eta **Komunikazio saria** eskuratzeko aukera izango dute, euskarazko komunikazioa molde eta formatu berrituetara egokitu eta euskarazko komunikazioaren mesedetan haien aukeraz baliatzeko urrats berritzailetzat jotzen diren ekimenek. Betiere, 2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 15era bitartean euskaraz sortu, ekoitzi eta, kasua bada, zabalduko komunikazio ekintza bat, komunikazio proiektu bat edo komunikazio proposamen bat izan beharko da nahitaez. Epaimahaiak oso kontuan hartuko du ekintza edo proiektu komunikatiboak euskal komunitatea elikatzeke izan duen edo izan dezakeen inpaktua, eta horren ondoan kontuan hartuko du baita ere teknologiaren erabilera berritua. “Komunikazio saria” ere 9.000 eurokoa izango da, eta Xabier Laka eskultoreak egindako irudi artistikoa emango zaio irabazleari.

Gehienez ere zortzi finalista izango dira, eta finalistek, saridunek izan ezik, Xabier Lakak bereziki Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako sortutako irudiaren serigrafia jasoko dute.

Saridun izateko hautagaitzak (kazetaritza edo komunikazio lanak) irailaren 20ra bitartean aurkez daitezke, proposamenak Andoaingo Udalera posta arruntez bidaliz edota helbide elektronikoa honetara igorritik: raks@andoain.eus. Finalista edo sariduna izateko ez da, halere, ezinbestekoa izango hautagaitza aurkeztea, epaimahaiak aukera osoa baitu bere proposamen propioak eztabaidatzeko, eta jasotako proposamenen eta epaimahaikideek beraiek egin eta eztabaidatutakoaren artean finalistak eta sariak erabakitzeke.

Epaimahaia ondorengo kideek osatuko dute: Miren Berasategi Zeberio (Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria), Eneko Bidegain Aire (idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea), Itxaro Borda Xarriton (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), Angel Erro Jimenez (idazlea, itzultzailea eta prentsa kolaboratzailea), Pantxika Maitia (kazetaria) eta Libe Mimenza Castillo (UPV/EHUko irakaslea eta ikerlaria). Mahaiburua izango da Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, Marta Lasa Goñi, eta idazkaria, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

36. edizio honetako finalistak nortzuk diren azaroaren hasieran emango du ezagutzera epaimahaiak, eta sari banaketako ekitaldia azaroaren bukaeran izango da Andoainen, Bastero Kulturgunean.